

## Kostuak eta diru sarrerak orekatzeko %0,8 igoko dira Udal ikastaroetako tasak

Aho batez onartu zen igoera; besteak beste, kiroldegiko ikastaro, musika eskola, kultur arloko ikastaro, Udal Euskaltegi eta jangelarako. «200 eurokoetan, igoera ez da bi eurora iristen», azpimarratu zuen Isa Sanchez zinegotziak.

HERNANI UDALA

Pleno lasaia izan zen astearteko Hernanin. Deialdian plazaratutako puntu guztiak onartu ziren eta ordenantza fiskalen aldaketaren inguruko hiru puntuak aho batez onartu ziren. Isa Sanchez zinegotziak hartu zuen hitza eta aldaketen hiru puntuak banan-banan azaldu zituen, eta ondoren, aho batez onartu zen bakoitza.

Sanchezek azaldu zuen, errealitatera egokitu behar dela,



Astearteko Plenoan, Esti Aldeiturriaga, Xabier Lertxundi, Koro Etxeberria eta Oier Agirresarobe.

esaterako, jabetza publikoa okupatzeagatik tasen ordenantza. Otsaileko tasetan, igoera %0,8koa izango da, urrian bezala: «kostuen eta diru sarreren artean oreka behar da». Ados agertu ziren alderdi guztiak. «Ikastaro asko 200 euro inguru kostatzen dira, eta igoera ez da bi eurora iristen».

Udal etxebizitzaren kudeaketari buruzko erabakia, aho batez onartu zen: hutsik dauden zuzkidurazko bizitokiak 35 urte azpiko pertsoneri alokairu erregimenean esleitzea ahalbidetzea,

eta araubide berezirik ez duten etxebizitzaren esleipenerako baldintza eta irizpideak bateratzea erabaki zen.

Andoni Amonarraiz EAJko bozeramailearen hitzetan baldintzetan akatsak zeuden, esaterako 70 urtean etxebizitzan jarri den batek 75 urtekin utzi behar izatea. Ados agertu zen Xabier Lertxundi alkatea, eta adierazi zuen, proiektu berri-zaile bat lantzen ari dela Udal Gobernuak, eta aurten argitaratuko dela.

Zazpigarren puntuan OinHe-

rri, Herri hezitzaile sarean parte hartzeko akordioa onartu zen 18 aldeko botoekin eta Podemos Ahal Duguren abstentzioarekin.

Erregu eta galderetan, Euskal Gazteria Aurrera! taldeak idatzi bat irakurri zuen, *Ustelen legea errautsa eta kea* izenburupean. Horrela, erraustegia eta ustelkeriaren aurka azaldu ziren; eta era berean, deia egin zuten, gaur 12:00etan Donostian, eta etzi 19:00etan Lasarten egingo diren mobilizazioetara batzeko. Ahal Dugu eta EH Bildu mobilizazioen alde agertu ziren. **K**

## Hernaniko nerabeen aisialdi ohiturak eta horiek ekar ditzaketen arriskuen azterketa, Udalak

Ikerketaren emaitza gaur plazaratuko da; Biteri kultur etxean, 17:30etan. Herriko 432 nerabek erantzun dituzte bost gairi buruzko galderak.

HERNANI UDALA

Hernaniko nerabeek dituzten arrisku jarreraren inguruko azterketa kuantitatibo eta kualitatiboa osatu du Udalak. Ikerketa Etorkintza Elkargoak egin du eta Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundu du. Ikerketaren helburua da Hernaniko 12 eta

16 urte arteko gazteen eta nerabeen aisialdi- eta aisia-ohiturak aztertzea eta ezagutzea, baita horiek arrisku-jokabideekin duten erlazioa ere. Gainera, Hernaniko nerabeen eta gazteen aisialdirako espazioetako arrisku-praktikei lotutako aldagaiak edo elementuak ezagutzeko lagungarria izan da.

Ikerketa lan hori osatzeko Hernaniko ikastetxeen laguntza ezinbestekoa izan da. 432 nerabeei inkesta bat pasa zitzaizen; 217 neska eta 215 mutil.

**Gazteen zuzeneko iritzia jaso zen, baita nerabeekin lan egiten duten elkarteen ere**

Bost gai nagusiren inguruan galdera sorta erantzuteko eskatu zitzaizen: aisialdi-ohiturak, substantzien kontsumoa, internet, sare sozialak eta bideojokoak, ausazko jokoak eta

apustuak, eta harreman interpersonalek.

Horretaz gain, alderdi kualitatiboa osatzeko hainbat eztabaida saio egin ziren. Gazteen zuzeneko iritzia jaso zen, baita nerabeekin lan egiten duten hainbat elkarte, profesional eta gurasoen iritzia ere.

Lan horren emaitzak ezagutzera emateko, Etorkintza Elkargoak ikerketaren aurkezpena egingo du Biteri kultur etxean, gaur 17:30etan. Ordubeteko aurkezpena izango da. **K**



## Produktuak eskatu daitezke gaurtik

HERNANI AEK ERRIGORA

Errigora-produktuen eskaerak gaurtik martxoaren 12ra arte egin daitezke [www.errigora.eus](http://www.errigora.eus) webgunean. Banaketa egunak, berriz ondorengoak izango dira: olioak, martxoaren 27an, 12:00etatik 19:30etara Plazan; eta kontserbak, aldiz, maiatzaren 29an, ordu tarte eta toki berean.

## Ibon Fernandez inguruko ebazpena gaur plazaratuko da

HERNANI PRESO ETA IHESLARIAK

Gaur plazaratuko da, Ibon Fernandez Iradi preso dagoen gaixo larriaren askatasunaren errekurtsoaren ebazpena. Bosgarren aldiz eskatu dute bere askatasuna: «Frantziako estatuko behin eta berriro oztopatzen du Ibonen askatasuna, fiskalaren bidez», adierazi du Hernaniko preso eta iheslarien senide eta lagunen elkarteak. Bere askatasuna eskatzeko, bihar, 20:00etan, Lasarteko Okendo plazatik abiatuko den manifestaziora deitu dute: «Hernani eta Buruntza eskualdeko herritarrei dei egiten diegu, manifestazioan parte hartzera. Hortaz, bihar Hernanin ez da kontzentrazioerik egingo».

## Martxoak 9ra arte, tasak ordaintzeko

HERNANI UDALA

Ura eta saneamenduaren (2019ko 3garren lauhilekoa), industria hondakinen (2019ko 4garren hiruhilekoa) eta hondakinen (2020ko 1go hiruhilekoa) zerga tasen erreziboak ordaintzeko epea, martxoaren 9an bukatuko da. Helbideratuta daudenak, epearen azken egunean, astelehen horretan, kobratuko dira; eta helbideratuta ez dutenek, etxean erreziborik jaso ez badute, udaletxeko HHZtik pasa behar dute kopia bat jasotzera.



**GAUR** Egoera egonkorta eta tenperatura dezente igoko da. Haizea hegoalde-tetik finkatuko da. Goizean hego haizearekin lainoak eta ostarteak tartekatuko dira. **Min.6° / Max.17°**

**BIHAR** Haizea hegotik ibiliko da eta tenperatura maximoak 15-20 °C artekoak izango dira. Erdi mailako lainoak nahiko sareta agertuko dira eta eguzki tarte ederrak irekiko dira. **Min.8° / Max.18°**

**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622  
**AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) Egunez: **Castilla** Urbietara, 7 (Hernani) **943 552941** Gaez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



## Ekologia eta iraunkortasunaren lotura egin berri da Hernanin

Ekiona farolen lehenengo instalazioa egin dute, kontsumo gutxiko LED luminaria eta Kenlok zentralita adimenduna dituztenak.

**HERNANI** INGURUMENA

Ekiona eguzki farolen lehenengo instalazioa egin da Hernanin Karabelek. Instalazioa kontsumo gutxiko LED luminaria eta Kenlok zentralita adimendunez hornituta dago.

Honi esker, onurak lortzen dira bai udalerriko biztanleentzat bai ingurugiroarentzat, lehendik bazegoen nekazaritza ekologikoaren jarduerarekin batuz.

Lehenengoei dagokienez, Ekionako farolen bitartez, isolatuta dauden eta sarera konektatzeko zailtasunak dituzten guneetako argiztapen-beharrak



Ekiona farolen lehenengo instalazioa Karabelek jarri da.

betetzea lortzen da, segurtasuna eta ongizatea modu iraunkorrean areagotzeko helburuarekin.

Bestalde, ingurumen onurak berotegi efektuko gasen isurketa murriztearekin zerikusia du, CO2 gasa batik bat. Horrek, gaur egun munduan eragina duen berotze globala murrizten laguntzen du.

Lehen aipatu bezala, instalazioa Kenlok zentralita adi-

mendunez hornituta dago, eta sistema honen helburua da, aurrera eramatea eguzki faroletako funtzionamendu parametroen kudeaketa, kontrola eta monitorizazioa.

Gainera, presentzia detektatzen du eta, horren bitartez, oinezkoen bat gertutik detektatzen argi-intentsitatea haunditzen du, instalazioaren eraginkortasuna eta errendimendua asko hobetuz. **K**

## Erremontearen Eguna larunbatean Galarretan, doako sarrerarekin

Arratsaldeko osoko festa antolatuko da 16:00etan hasita; eta Urrezko Erremontea ere emango da.

**HERNANI** ERREMONTA

Galarretan Erremontearen Eguna ospatuko da etzi, larunbaterekin. Garai batean, Erremontearen Gala bezala ezagutzen zena da, hain justu; eta bertan, denboraldiko erremontista one-

nek urteko sariak jasoko dituzte, multzo desberdinetan.

Urrezko Erremontea saria ere bertan emango diote, urteko onenari. Gainera, sarrera doan izango da, eta kirol ikusgarri honetaz gozatzeko aukera paregabea da larunbatekoa.

Arratsaldeko 16:00etatik aurrera, partiduak jokatu dira; eta tartean, musika, kirola, sariak, luntxa... denetarik egongo da. Festa borobila izango da, eta baliteke, gainera, sari nagusia, Urrezko Erremontea, erremontista hernaniar batek eskuratzeko: sekulako denboraldia egin du Endika Barrenetxeak, Buruz Buruko Txapelketa irabazita. **K**

## Langileko 50garren urteurrenean lau ekitaldi hiru egunetan, martxoan

Martxoaren 14an izango da emanaldi nagusia, Atsegindegina; eta sarrerak gaur jarriko dira salgai Biterin, 18:00etatik 19:30etara, 5 euroan.

**HERNANI** LANGILE IKASTOLA

Langile ikastola bere 50garren urteurrena ospatzen ari da eta martxoan antolatu dute ekitaldi nagusia. Hori martxoaren 14an izango da, Atsegindegina, eta 19:00etan hasiko da. 22:30etan kontzertuak antolatu dituzte Kilimak, Trini-Fox eta Ainhoa Larrañagarekin.

Bi ekitaldi horietarako sarre-

rak gaur jarriko dira salgai Biterin 18:00etatik 19:30etara 5 euroan. Martxoaren 3, 4 eta 5ean ere egongo dira salgai.

**Diskofesta 13an, emanaldi nagusia 14an eta Kontu Kantari 28an**

Arratsaldeko 19:00etako emanaldi nagusia, denetik izango da: margolariak eta txalaparta, dantzariak, bertso jolas anekdotikoak, dokumentalaren aurre-

rapena, argazki emanaldia, eta Langileko ereserkia berriaren aurkezpena, bosgarren mailako ikasleen eskutik.

Hala ere, motorrak berotzen egun bat lehenago hasiko dira, martxoaren 13an 16:45etan, Disko Festarekin. Laubidetako kirol eremuan egingo da, LHko ikasleentzat. Eta hilabetea amaitzeko, martxoaren 28an, Kontu Kantari ikuskizuna antolatu da Biterin, HHko ikasleentzat. Ikuskizun honetarako ere, sarrerak gaur jarriko dira salgai, Bidebietan 16:30etan, 4 euroan. **K**

## 'Ni munduko txarrena', Antzoki Zaharrean

Ainara Ortega tartean dela, bere azkeneko lana estreinatuko du Vaivenek, bihar eta etzi euskeraz, eta igandean gazteleraz.

**URUMEA** ANTZERKIA

Ainara Ortega aktore eta abeslari hernaniarra *Ni munduko txarrena* antzezlaneari ariko da bihar eta etzi Donostiako Antzoki Zaharrean. Vaiven antzerki etxearen azken lana da eta estreinaldia izango da bihar, 20:00etan. Sarrerak 18,10 euroan daude salgai. Igandean ere emanaldia egongo da gazteleraz. Musikala da eta Ortegak, abeslari eta aktore lanez gain euskerazko testua edo gidoia ere idatzi du.

Olga Margallo da zuzendaria

eta Iñaki Salvadorrena jatorrizko musika. Parte hartuko duten aktoreak: Itxaso Quintana, Nerea Gorriti, Ainara Ortega, Dorleta Urretabizkaia eta Ugaitz Alegria dira.

*Ni munduko txarrena* gaurkotatzen haundiko ikuskizun musikala da. Guztiari eta guztiei aurre egiten dien emakume baten istorioa da. Bere bertsoen indarrez, Sor Juana Inés de la Cruzek aginterri dekadente bateko gorte koloniala liluratuko du.

Bertan boteretsuen maitale bihurtuko da, Urrezko Aroaren musa eta bere espiritu menderakaitza oinperatu ezin duen Elizaren biktima. Ikuskizun bitalista da, kolorez, musikaz, edertasunez eta bere garaian jenioa izan zen emakume baten irudimenak kutsatua, gaur egun ere harritzen jarraitzen du. **K**

## Mus txapelketan izenematea, etzi arte

**HERNANI** XALAPARTA ELKARTEA

Xalaparta elkarteak mus txapelketan izena emateko epea irekita dago larunbatera arte. Elkartean bertan jarritako panelean apuntatu daitezke bikoteak.

## EH Bilduk batzar irekia deitu du gaurko

**ASTIGARRAGA** HERNANI EH BILDU

Astigarragako EH Bilduk batzarra deitu du gaur arratsaldeko 19:00etan Kultur Etxeko areto nagusian. Bi gai jorratu dira nagusiki: batetik, Eusko Legebiltzarreko apirilaren 5eko hauteskunde deialdiari erantzuteko lanketari ekingo zaio. Helburuak kanpaina diseinatzen hasi eta erronka berri honi erantzun dion lan-taldea osatzea izango dira. Bestetik, lehenengo 8 hilabeteko udal gobernuaren balantzea egingo da herritarrekin. Errepaso labur bat egingo da eta herritarren kezka zein ekarpenak jasoko dira. EH Bilduk dei egiten diete herritar guztiei bertan parte-hartu eta euren ekarpenak eta iritziak partekatzea. Hernanin bilgunea gaur irekita egongo da, 18:00etatik 20:00etara, hautes zerrendaren bozketa egiteko.

**IRAGARKI** MERKEAK

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

**DOBERAK BEGIRALEA BEHAR DU** eguerditan gazteekin antzeko

Bidali zure Curriculum Vitae-a, **martxoaren 4a** baino lehen:

[dobera@dobera.eus](mailto:dobera@dobera.eus)

**ESKATZEN DA:**

- Euskara ondo menperatzea
- Begirale titulua edo hezkuntzarekin erlazionatutako formazioa
- Haur eta gazteekin esperientzia

**BALORATUKO DA:**

- Doberako bazkide izatea
- Hernaniarra izatea

**ESKAINIKO ZAIJO:**

- Eginkizunari dagozkion soldata eta lan baldintzak
- Kontratu formalak

Baldintzak betetzen dituzten arteen elkarrizketak egin eta baf aukeratu da